

DETERMINATZAILEAK: ARTIKULUAK, ERAKUSLEAK, ZEHAZTUGABEAK

5 Markatu determinatzaileen definizio zuzena.

- ☐ Artikuluak eta erakusleak dira.
- ☐ Izenen ordeztasunaren diren hitzak dira.
- ☐ Izenen lagundu eta haiei buruzko informazioa ematen duten hitzak dira.
- ☐ Izena nolakoa den adierazten duten hitzak dira.

2 Lotu determinatzaile mota bakoitza dagokion definizioarekin, eta osatu beheko esaldia.

- | | |
|---------------|---|
| Artikuluak | • Izenaren edo izenondoaren ondoan doaz, baina ez lotuta. |
| Erakusleak | • Izenaren ezkerrean kokatzen dira, eta ez dute kopuru zehatzik adierazten. |
| Zehaztugabeak | • Izenari edo izenondoari lotuta agertzen dira. |

5 Idatzi singularrean dauden esaldiak pluralean, eta alderantziz.

- Txakur beltz hori asko gustatzen zait.
.....
- Gorkaren lagunak gurekin etorri dira hondartzara.
.....
- Txori hauek txioka hasten dira eguzkia ikusten dutenean.
.....

8 Idatzi determinatzaile zehaztugabe hauek beheko esaldietan.

edozer zein zer edozein

- Imandek pertsonari kontatzen dizkio bere kontuak.
- liburu irakurri duzu aste honetan: *Mila eta bat gau* ala *Ametsetako hitzak*?
- jostailu oparitu dizute zure urtebetetze-egunean?
- gauza eramaten du ahora ume honek!

6 Zein hitzek ez du determinatzaile? Inguratu.

jostailu hori lagunak maite izar bat	txakur batzuk belar berdea mahai hau sudurluze	hiru lore ontzi edozer gauza mendiak	adar arrain hura orri zuriak hamar neska
---	---	---	---

7 Idatzi determinatzaile hauek beheko esaldietan.

hauek batzuk -ak
-a bost

- Plaza horretako iturri..... eta eserlekuak berriro dituzte.
- Untxi..... eta erbiak ikusi ditugu zuhaixken atzean lotan.
- Katagorri..... zuhaitzetik zuhaitzera dabilta.
- Txerriak..... ezkur jan ditu ahokada batean.
- Lagun..... mendira joan dira; beste batzuk, hondartzara.

1 Irakurri testua, eta sailkatu hitzak.

Zuhaitzei begira zeuden osaba-ilobak: sagarrondoak, haritzak, pagoak... Edo-zein zuhaitz zen polita udaberrian. Hango zuhaitz hura, ordea, hostorik gabe zegoen, zimelduta balego bezala. Hara hurbildu, eta konturatu ziren enborra zulatuta zegoela. Ba al dakizu zer animalia bizi ziren zulo hartan? Katagorriak. Aspalditik bizi ziren, gainera, katagorri horiek han. Osaba-iloba haiek harrituta geratu ziren katagorrien etxea barrutik ikusi zutenean: zernahi gauza zuten!

Artikuluarekin	Erakuslearekin	Zehaztugabearekin
.....		
.....		
.....		

6 Osatu testua, determinatzaile hauek erabilita.

ehun

pixka bat

asko

hiru

denok

Aretoa jendez gainezka zegoen; pertsona inguru egongo ginen han. geunden oso urduri, eta egarria ere sumatu nuen. Ur-botila atera, eta ur edan nuen. Halako batean, pertsona igo ziren taulara: abeslaria, gitarra-jotzailea eta bateria-jotzailea. Abesti abestu zituzten, eta oso ondo pasatu nuen! Kontzertu aparta izan zen.

DETERMINATZAILEAK: ZENBATZAILEAK

4 Zein zenbatzaile motaren definizioak dira? Markatu.

a) Zenbakiak izaten dira, eta izenaren ezkerrean jartzen dira gehienak.

☐

Zenbatzaile zehaztuak.

☐

Zenbatzaile zehaztugabeak.

☐

Zenbatzaile orokorrak.

b) Ez dute kopuru zehatzik adierazten. Izenaren ezkerrean eta eskuinean jartzen dira.

☐

Zenbatzaile zehaztuak.

☐

Zenbatzaile orokorrak.

☐

Zenbatzaile zehaztugabeak.

c) Osotasuna adierazten dute.

☐

Zenbatzaile zehaztuak.

☐

Zenbatzaile orokorrak.

☐

Zenbatzaile zehaztugabeak.

5 Irakurri testu hau. Inguratu zenbatzaileak, eta sailkatu behean.

Makina bat ibilaldi egin izan dut aitona-amonekin paraje hauetan. Ne-guan, zuhaitz guztiak hostorik gabe egoten dira, eta animalia gutxi ikus-ten ditugu. Udaberrian, eguraldi ederra hasten denean, animalia batzuk beren ezkutalekuetatik irteten hasten dira, eta dena lorez betetzen da.

Udaberrian, beti ateratzen dugu argazki bat leku berean: hiru zuhaitz jausita dauden lekuan. Dagoeneko izango ditugu hamar argazki inguru.

Zehaztuak

Zehaztugabeak

Orokorrak

- 6 Zenbatzaile batzuek, kopuru zehatzak adierazteaz gainera, kopuru zehaztugabeak ere adierazten dituzte zenbait egoeratan. Osatu esaldiak zenbatzaile hauek idatzita, bakoitza bi aldiz erabilia.

bost


hamaika

- Niri axola! Egin ezazu nahi duzuna!
- pertsona joan ginen: Eneritz, Iban, Edurne, Urko eta ni.
- Astebete baino gehiago falta da oporretarako; egun, zehatz esateko.
- buruhauste sortzen dizkirate azterketek!

- 7 Aurreko jarduerako zein esalditan dute adiera zehatzua zenbatzaileek? Eta zeinetan, zehaztugabea?

- Zehatzua:
- Zehaztugabea:

- 8 Osatu determinatzaileen eskema hau, eta eman adibide bana.



Adierazi zer determinatzaile mota den.

Bat-batean ikasle GUZTIAK dantzan jarri ziren.

- ☐ Zenbatzaile orokorra
- ☐ Zenbatzaile zehaztua
- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea

Jokinek GUTXI jaten du.

- ☐ Zenbatzaile orokorra
- ☐ Zenbatzaile zehaztua
- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea

ZORTZI arrautza erabili dut tortilla egiteko.

- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea
- ☐ Zenbatzaile orokorra
- ☐ Zenbatzaile zehaztua

Bizkotxo OSOA jan du Nagorek.

- ☐ Zenbatzaile zehaztua
- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea
- ☐ Zenbatzaile orokorra

HOGEI liburu ekarri ditu Gontzalek.

- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea
- ☐ Zenbatzaile zehaztua
- ☐ Zenbatzaile orokorra

Udaberrian HAINBAT lore egoten dira zelaian.

- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea
- ☐ Zenbatzaile orokorra
- ☐ Zenbatzaile zehaztua

ZORTZI txikie batera sartzen ditu lkerrek ahoan.

- ☐ Zenbatzaile zehaztua
- ☐ Zenbatzaile orokorra
- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea

Mundu GUZTIA dago arduratuta gaur egungo egoera dela eta.

- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea
- ☐ Zenbatzaile zehaztua
- ☐ Zenbatzaile orokorra

DENOK batera egin genuen ariketa.

- ☐ Zenbatzaile orokorra
- ☐ Zenbatzaile zehaztua
- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea

Atzo gaueko filmea PIXKA BAT aspergarria iruditu zitzaidan.

- ☐ Zenbatzaile zehaztua
- ☐ Zenbatzaile orokorra
- ☐ Zenbatzaile zehaztugabea